

IL AZALPEN PROBA • <i>Zaindari ikusezina</i>	
Kodea* .....	Taldea .....
*Anonimotasuna, eraginik gabe kalifikatzeko	

Edukia		/ 2,5
Moldea		/ 2,5
Zuzentas.		/ 5
GUZTIRA		/ 10

- > Hasteko, **kokatu** zati hori: aurkeztu obra, nork idatzia den, ezaugarri orokorrak, berezitasunak...
  - > Ondoren, **zehaztu** zatia (zer, nor(tzuk), non, zergatik...), eta hortik abiatu egizu iruzkina edo komentario orokorra, beti ere **obraz ezer ez dakien irakurle bati** azalduko bazenio bezala.
1. Idatzi orri zurian bakarrik. Orrialde honen atzeko alde zure apunteetarako erabil dezakezu.
  2. Helburua –**IL lanean egin duzun bezala**–: obraren edukia eta ezaugarriak azaltzea, eta **iritzia** ere ematea.
  3. Azalpena argia izan dadila, eta kohesionatua, idazlan moldekoa. **EZ** idatzi zatiak eginez, txosten eran.
  4. Neurria: 300-400 hitz; txukun eta margenak utzita. Amaitutakoan, jarri hitz kopurua: .....

—Hamabost, ez dut uste hamaseira iristen zenik —erantzun zion Iriartek ondora etorriz. Gorpuari begiratu zion eta lasterka hasi zen. Handik hamarren bat metrora makurtu eta botaka egin zuen. Inork ez zuen ezer esan, ez orduan ez paparra paperezko zapi batez garbituz eta barkamen-eskeak xuxurlatuz itzuli zenean ere.

Anneren azala oso zuria izana zen; baina ez azal margul, ia garden, oreztaz eta gorriunez bete horietakoa, zuria, garbia eta krema-kolorekoa baizik, ilerik gabea. Ibaiko ihintzak estalita zegoela, hilobiko estatua baten marmola zirudien. Carlak eta Ainhoak ez bezala, honek borroka egin zuen. Bi azkazal behintzat haragi bizitan geratu arte puskatuta zeuzkan. Besteen azpian ez zen azal arrastorik ikusten. Besteek baino denbora gehiago iraun zuen hiltzeko, inondik ere: begiak lausotzen zizkion gandua gorabehera, bistan zituen asfixiaz hil zela eta aire faltaren sufrimendua adierazten zuten petekiak. Gainerako guztian, hiltzaileak zehazki errepikatu zituen ordu arteko hilketen xehetasunak: kordel mehea ezarrian, jantziak urratuta eta alde banatara zabalduak, bakeroak belaunetaraino jaitsiak, pubiseko ilea moztuta eta opil usaintsu, likatsua pelbisaren gainean jarrita.

Jonan neskaren oinetarantz jaurretako ilearen argazkiak egiten ari zen.

—Dena berdin, nagusi, berriro beste neskak ikustea bezalaxe da.

—Hostia! —garrasi ito bat iritsi zen metro batzuk ibaian beheragotik, tiro baten zarata ezin nahastuzkoarekin; harrizko hormetan errebotatuz gortzeko moduko oihartzun bat egin zuen; une batez durduza eragin zion, denek beren armak atera eta ibaian beheranzko leku hartarantz destatzen zutela.

IL AZALPEN PROBA • <i>Zaindari ikusezina</i>	
Kodea* .....	Taldea .....
*Anonimotasuna, eraginik gabe kalifikatzeko	

Edukia		/ 2,5
Moldea		/ 2,5
Zuzentas.		/ 5
GUZTIRA		/ 10

- > Hasteko, **kokatu** zati hori: aurkeztu obra, nor*ki* idatzia den, ezaugarri orokorrak, berezitasunak...
  - > Ondoren, **zehaztu** zatia (zer, nor(tzuk), non, zergatik...), eta hortik abiatu egizu iruzkina edo komentario orokorra, beti ere **obraz ezer ez dakien irakurle bati** azalduko bazenio bezala.
1. Idatzi orri zurian bakarrik. Orrialde honen atzeko alde zure apunteetarako erabil dezakezu.
  2. Helburua **–IL lanean egin duzun bezala–**: obraren edukia eta ezaugarriak azaltzea, eta **iritzia** ere ematea.
  3. Azalpena argia izan dadila, eta kohesionatua, idazlan moldekoa. **EZ** idatzi zatiak eginez, txosten eran.
  4. Neurria: 300-400 hitz; txukun eta margenak utzita. Amaitutakoan, jarri hitz kopurua: .....

—Hauxe izatekoa. Ea, esadazu hori: zergatik nik beste inork baino hobeto.

—Hemen jaio eta hazi zinelako; ez didazu esango historia horiek txiki-txikitandik entzun ez dituzunik. Ez dira ergelkeriak, euskal kulturako eta mitologiako gauzak dira, eta ez da ahaztu behar gaur egun mitologia dena erlijioa izan zela lehendabizi.

—Ba, ez ahaztu erlijiorik muturrekoenaren izenean esetsi eta kondenatu zirela sutan hiltzera dozenaka emakume bailara honetan, 1610eko fede-autoan, horixe bezalako sineste zentzugabeengatik, eta eskerrak eboluzioak atzean utzi dituen horiek denak.

Jonanek ukatu egin zuen, bere inspektoreorde gaztearen itxurapean gordetzen zuen jakintza guztia Amaiaren aurrean zabalduz.

—Gauza jakina da erlijiozko suhartasunak eta elezaharrek eta ezjakinek piztutako beldurrek kalte handiak egin zituztela, baina ezin uka daiteke azken aldiko historia honetako fede-gertakaririk izugarrienetako bat izan zela. Orain dela ehun urte, ehun eta berrogeita hamar, gehienera ere, nekez aurkituko zen sorginetan, belagileetan, basajaunetan, tartalorengean eta batez ere Mari, jainkosa, jeinu ama zeruan trumoia eragin eta herria goseterik izugarrienera kondena zezaketen txingor-erauntsirik gogorrenak abiaraz zitzakeen uztaren eta abereen babeslearengean ez zuela sinesten esango zuen bat. Une batean jende gehiagok sinesten zuen sorginetan Hirutasun Santuan baino...

IL AZALPEN PROBA • <i>Zaindari ikusezina</i>	
Kodea* .....	Taldea .....
*Anonimotasuna, eraginik gabe kalifikatzeko	

Edukia		/ 2,5
Moldea		/ 2,5
Zuzentas.		/ 5
GUZTIRA		/ 10

- > Hasteko, **kokatu** zati hori: aurkeztu obra, nor*k* idatzia den, ezaugarri orokorrak, berezitasunak...
  - > Ondoren, **zehaztu** zatia (zer, nor(tzuk), non, zergatik...), eta hortik abiatu egizu iruzkina edo komentario orokorra, beti ere **obraz ezer ez dakien irakurle bati** azalduko bazenio bezala.
1. Idatzi orri zurian bakarrik. Orrialde honen atzeko aldea zure apunteetarako erabil dezakezu.
  2. Helburua –**IL lanean egin duzun bezala**–: obraren edukia eta ezaugarriak azaltzea, eta **iritzia** ere ematea.
  3. Azalpena argia izan dadila, eta kohesionatua, idazlan moldekoa. **EZ** idatzi zatiak eginez, txosten eran.
  4. Neurria: 300-400 hitz; txukun eta margenak utzita. Amaitutakoan, jarri hitz kopurua: .....

—Neska batzuek elkar besarkatu eta negar egiten zuten, isilik; Ainhoaren lagunen artean ikusi zuen kemen falta huraxe bera ageri zen hauen aurpegietan ere. Galdua zuten gazteen aurpegiek izan ohi duten distira natural hori, inoiz ez dutela hil behar seguru jakiteak ematen duen, nerabe horientzat mila argi-urtera dagoen eta pentsatu ere ezin duten zahartzaro baten ondoren etortzekoa den heriotzarekiko burlaize hori; orain ordea, une gogor honetan, bertatik bertara ikusten zuten eta uki zezaketen heriotza. Beldurra zuten. Zurrundurik uzten zaituen beldur hori, heriotzak aurki ez zaitzan ikusezin bihurtu nahiko zenukeen beldur hori. Ziurtasuna, hurbiltasuna, errauts-geruza mehe baten gisan atzematen zen haien agure isil eta neurritsuen gisako aurpegi nekatuetan. Inork ez zituen kentzen begiak Anneren zerraldotik; aldarearen aurrean kokaturik, modu hipnotiko batean distirutzen zuten, ezkongai birjina baten lore zuriz inguratuta, alboetan pizturik zituen kandelen argitan.

—Goazen –xuxurlatu zion Amaiak Jonani—. Jendea iristen hasi baino lehen egon nahi dut hilerrian.

IL AZALPEN PROBA • <i>Zaindari ikusezina</i>	
Kodea* .....	Taldea .....
*Anonimotasuna, eraginik gabe kalifikatzeko	

Edukia		/ 2,5
Moldea		/ 2,5
Zuzentas.		/ 5
GUZTIRA		/ 10

- > Hasteko, **kokatu** zati hori: aurkeztu obra, nork idatzia den, ezaugarri orokorrak, berezitasunak...
  - > Ondoren, **zehaztu** zatia (zer, nor(tzuk), non, zergatik...), eta hortik abiatu egizu iruzkina edo komentario orokorra, beti ere **obraz ezer ez dakien irakurle bati** azalduko bazenio bezala.
1. Idatzi orri zurian bakarrik. Orrialde honen atzeko alde zure apunteetarako erabil dezakezu.
  2. Helburua **–IL lanean egin duzun bezala–**: obraren edukia eta ezaugarriak azaltzea, eta **iritzia** ere ematea.
  3. Azalpena argia izan dadila, eta kohesionatua, idazlan moldekoa. **EZ** idatzi zatiak eginez, txosten eran.
  4. Neurria: 300-400 hitz; txukun eta margenak utzita. Amaitutakoan, jarri hitz kopurua: .....

—Amari ez hain ongi, baina zu lasai zeunden, nolahi ere: hemen geunden Ros eta ni etxeko tradizioari eusteko.

—Bazenuen aukera.

Florak eztanda egin zuen.

—Zuk ez dakizu zer den erantzukizuna –esan zion Amaiarengana biratu eta hatzaz destatuz.

—Mesedez... –erregutu zion Amaiak gogaiturik.

—Zer mesede eta zer mesede ondo... Ez zuk ez Rosek ez Bittor galdu horrek ez dakizue zer esan nahi duen hitz horrek...

—Denentzat dago, nonbait –irribarre egin zuen nekaturik eta ahotsa jaso gabe-. Flora, zuk dagoeneko ez nauzu ezagutzen, ez naiz gozotegitik ihes egiten zuen neskatxo hura. Ez ahaztu nire lanean, egunero...

—Zure lana –eten zion-, nor ari da zure lanaz? Zu bakarrik, polit hori; ni familiaz ari naiz, negozioari norbaitek eutsi behar ziola.

—Jaungoikoarren, Michael Corleone esango litzateke... Negozioa, familia, mafia –Amaiak keinu bat egin zuen eskuko hatzak batuz, eta horrek are gehiago haserretu zuen ahizpa; amorrurik bizirik begiratu zion, eskuetan zerabilen zapia mahai gainera bota eta bere besaulkian eseri zen, idazmahai argia egiten zuen lanparatxo dardaratan jarriz-. Flora, Ros eta biok hemen bizi zineten, biak zineten gozogintzazaleak txikitandik, txoratuta sartzen zenituzten orduak hemen, hiru une zituenerako Rosek bazekien erroskilak eta madalenak egiten...

IL AZALPEN PROBA • <i>Zaindari ikusezina</i>	
Kodea* .....	Taldea .....
*Anonimotasuna, eraginik gabe kalifikatzeko	

Edukia		/ 2,5
Moldea		/ 2,5
Zuzentas.		/ 5
GUZTIRA		/ 10

- > Hasteko, **kokatu** zati hori: aurkeztu obra, nor*ki* idatzia den, ezaugarri orokorrak, berezitasunak...
  - > Ondoren, **zehaztu** zatia (zer, nor(tzuk), non, zergatik...), eta hortik abiatu egizu iruzkina edo komentario orokorra, beti ere **obraz ezer ez dakien irakurle bati** azalduko bazenio bezala.
1. Idatzi orri zurian bakarrik. Orrialde honen atzeko alde zure apunteetarako erabil dezakezu.
  2. Helburua **–IL lanean egin duzun bezala–**: obraren edukia eta ezaugarriak azaltzea, eta **iritzia** ere ematea.
  3. Azalpena argia izan dadila, eta kohesionatua, idazlan moldekoa. **EZ** idatzi zatiak eginez, txosten eran.
  4. Neurria: 300-400 hitz; txukun eta margenak utzita. Amaitutakoan, jarri hitz kopurua: .....

—Suerte handia dugu Takchenko hemen edukita –esan zuten González doktoreak—. Urteetan lan egin zuten bere herrialdean hauxe egiten, baina orain dela bi urte curriculumu bidali zigun eta gurekin lan egitea erabaki zuten. Asko pozten gara.

Takchenko doktoreak irribarre egin zuten.

—Zer iruditzen zaizu gure gonbidatuentzat kafetxo bat prestatzen baduzu, doktore jauna?

—Bai horixe –esan zuten hark, barre eginez—. Takchenko doktoreak ezin ditu onez eraman konplimenduak. Denbora pixka bat beharko dut, eraikinaren beste muturreraino joan behar dut-eta –desenkusatu zen.

—Jonan, lagundu iezaiozu, mesedez; biotako bat hemen egonda aski izango da.

—Gonzalez doktorea oso atsegina da –esan zuten Amaiak gizonek alde egin zutenean.

—Bai horixe –erantzun zion Takchenko doktoreak bere doinu nabarmenaz—. Oso atsegina.

Amaiak bekain bat jaso zuten.

—Zuri gustatzen zaizu?

—Baietz espero dut, beharko. Nire senarra da. Gustatzea hobeto, ezta?

—Baina... Doktore jauna deitzen diozu eta hark zuri...

—Bai, Takchenko doktorea –soinak jaso zituen irribarre eginez—. Zer nahi duzu esatea, lanean serioa naiz, eta berari barregura ematen dio.